

SARRERA

Neguaren bueltan udaberrian sartu gara eta udaberriarekin hementxe duzu urtero bezala LEZO aldizkariaren beste ale bat. Ale hau ere zerbait esan nahian dabilzan herritarren ezinbesteko laguntzaz osatua.

Irakurleak berehala ikusiko du, ordea, ale hau ez dagoela atzera begirako kontuez osatua. Ale honetan biltzen diren zenbait lanek ederki asko erakusten digute gure herri honek aurrean dituen arazo latzak. Autobidea presente dago lan bat baino gehiagoren atzean -hor ikusiko duzu autobidea ez dela txantxetako gauza eta horrek zer pentsatua ematen digu-. Era berean, Espainiako espetxetan sakabanatuta, herritik milaka kilometrotara dauden herritarrak eta hauen senideek urtetan eta etengabe bizi duten zigorra haien ahoz ezagutzeko aukera duzu.

Honekin guztiarekin batera zahar eta gazteen lanak ere baditugu amaitzen ez den soka baten irudi. Eta hemen zaharrik bada, zalantzarik gabe, aldizkaria zabal-tzen duen Orreagako Gatazka da, irakur dezagun arretaz, aspaldiko kontua izan arren euskaldunok badugu eta hor zer ikasia.

Animo, beraz, eta aurrera.

* * *

He aquí, una vez más, un nuevo ejemplar de la revista LEZO, que llega a tus manos como cada año en primavera y el cual debemos a la inestimable aportación de los lezotarras.

Vereis que este nuevo ejemplar viene más cargado que de costumbre con temas de actualidad, muestra de los tiempos difíciles a los que se tiene que enfrentar nuestro pueblo. Entre otras son muchas las referencias a la autovía y las consecuencias que acarrearía su construcción. Además de ellos también tienes la oportunidad de conocer el castigo añadido que sufren los lezotarras presos y sus familiares. Son precisamente estos últimos los mejores testigos de esa situación.

Un nuevo ejemplar donde como en anteriores ocasiones, hasta las referencias a tiempos remotos, como en este caso la batalla de Orreaga (Roncesvalles), recobran indiscutiblemente actualidad.

Animo, esperamos que os guste.